



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Itxaropen berri bat

**zaten da lantzean behin. Fikzioan bederen saga erral-
doi baterako lehen hazia eman zuten 70 hamarkadan,
inperioen eta erresistentzien arteko guda izarretan
betikotuz.** Garai horietan, itxaropen berri hori Europar
Batasunak Lindanoa nekazaritzan erabiltzeko debekua
izan zitekeen, apika. Edo Lindanoaz haratago, Konpo-
satu Organiko Iraunkorrek desagerrarazteko Stockolmeko
hitzarmena, izan zitekeen mendea hastearekin kantuz ira-
gartzen zen hurrengo geltokia: esperantza. Luze gabe, bai-
na, euskaldunok esperantzara kondenatuta gaudela ikusiko
genuen, Barakaldo, Alonsotegi eta Sestaoko herritarrak urez
hornitzen zituen Oiologo urtegian orduko legediak onartu-
takoa 12 aldiz gainditzen zuen kontzentrazioan antzeman
zirenean HCHaren isomero anitz, 2008an, EBN debekua in-
darrean sartu zen urte berean. Paperak dena aguantatzen
duen bitartean, konposatu iraunkor, toxiko eta biometaga-
rri hauek bere bidea egiten jarraitzen dute zeharo deskon-
trolaturiko zabortegetatik, erreka eta itsasoraino, bidean
bizidunon gorputzak zeharkatuz.

**Lindanoaz luze hitz egin da gure herrian,
baina merezi du problematika azaltzeak.**

HCH Hexakloroziklohexenoaren labur-
dura da, $C_6H_6Cl_6$ da bere formula kimi-
koa eta irudira ekarritako isomero
anitzak ditu, lindanoa gama isomeroari
deritzolarik. Denek dituzte pestiziden
ezaugarriak, beste konposatu organoklo-
ratu batzuek bezala, eta masiboki erabili
izan dira XX. mendearen bigarren er-
dian, nekazaritzan nagusiki, baina baita
zorriak akabatzeko ere. Lindanoa da iso-
merorik eraginkorrena -toxikoen, baina
era berean gorputzetan gutxien meta-
tzen dena- eta horregatik zentratu zen
beronen fabrikazioan. Arazoa, baina, lin-
dano tona bat ekoizteko, zabor gisa, gai-
nerako isomeroen sei eta hamar tona ar-
tean sortu izan direla da, eta jakina,
zabor honen kudeaketa guztiz deskon-
trolatua izan da. Konposatu toxikook le-
kuan gorde eta tratatu ordez -ikaragarri
garesti litzaiekena-, han-hemenka bota
izan dira, hobietan, meatzetan,... nonhai.
Hainbeste, ezen egun erronka nagusi bat
errekatan antzematen den HCHaren ja-
torria antzematea baita. Atera kontuak

lindanoa gurean Barakaldo eta Asuan soilik fabrikatu den
arren, zaborrak Murtziaraino iritsi baitira, baita alderantziz,
Viana zein Iguzkitzara, Samiñanigon sorturikoak.

**Bada, anabasa honen erdian, heldu da asteon itxaropen
berri bat, lindanoa lurretik kentzeko konposatu bat sortu
dutenean Nafarroako Unibertsitateko eta Magna eta Em-
grisa enpresetako ikertzaileek.** Magnesio oxidoa eta kar-
bono aktiboa ditu osagai konposatu berriak, mikroporoz
betea dago eta bereziki xurgatzailea dela adierazi dute, lin-
danoaz gain metal astunak berreskuratzeko balio duelako,
besteak beste. Konposatu hau ekoizteko eta aplikatzeko ere
oso erraza omen da, zuzenean aplikatu baitaiteke kutsatuta-
ko lurzoruan, isolatu gabe, denbora gutxian lindanoaren
%70 inguru ezabatzeko gai delarik. Itxaropenak beti pizten
du argitxo bat, iluna itsugarria izanagatik. Ez da segurtasu-
naren berme, menderatzaileek sinistarazi nahi diguten be-
zala, baina aitzitik, bizirik gaudela erakusten digu, kaltetu-
ta, baina bizirik! •

